



## BOZUE UDALTALDE 21



**Tokiko Agenda 21. Altzo.  
Behin Betiko Ekintza Plana**

<b>Izenburua / Título:</b>	Tokiko Agenda 21. Altzo. Behin Betiko Ekintza Plana			
<b>Engileak / Autores:</b>	Oinarrizko Lantaldea: Amaia Aramendi (Tokiko Agenda 21eko Teknikaria, Tolomendi), Miren Askasibar (Paisaia, S.L.), Onintza Andrés (Paisaia, S.L.).			
<b>Hartzaileak / Destinatarios:</b>	Altzoko Udala			
<b>Edizioko data / Fecha de edición:</b>	2007ko azaroaren 23an			
<b>Itzulpena / Traducción</b>				
<b>Orriak / Páginas:</b>	27			
<b>Bertsioa / Versión:</b>				
<b>Erreferentzia / Referencia:</b>				
<b>Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:</b>	2006ko otsailaren 20a			
<b>Iraupena / Duración:</b>	18 hilabete			
<b>Bertsioen historia / Historial de las versiones:</b>	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
Lerro estrategikoen zerrenda .....	5
Helburuak .....	6
LE1. Etxebizitza, oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea bermatu. ....	6
LE2. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase. ....	7
LE3. Ur/Energia/Hondakin zerbitzuak hobetu. ....	8
LE4. Udalerriko ekonomiaren sustapena eta dibertsifikazioa lortu	8
LE5. Baserri bizitza mantendu eta suspertu, naturaren, paisaiaren, ondare kulturalaren eta herri nortasunaren mantenuan duen garrantziarekin uztartuz .....	9
LE6. Natur baliabideak eta ondarea zaindu. ....	9
LE7. Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen eragina murriztu .....	10
LE8. Udalerriko hirigintzaren plangintza eta araudia iraunkortasun irizpideekin landu .....	10
LE9. Udal kudeaketa hobetu eta herri kohesioa sustatu .....	10
Behin Betiko Ekintza Plana .....	12
Udalez gaindiko erakundeek proposatutako ekintzak .....	24
Enirio Aralarko Mankomunitatea .....	24
Tolomendi .....	25
Tolosaldea Garatzen.....	27
Tolosaldeako Zaborren Mankomunitatea .....	27

## SARRERA

Diagnostikoaren ondorioetatik abiatuz, herriaren norabidea hurrengo urteetan zuzenduko duten helburu batzuk finkatuko ditugu. Helburuak Lerro Estrategikoetan kondentsatuko ditugu, eta Lerro Estrategiko bakoitza Programen bidez garatuko dugu. Azkenik, Altzok bere buruari markatu dizkion erronkei erantzungo dieten Ekintzak definitu, eta dagokien Lerro Estrategiko eta Programan kokatuko ditugu.

Ekintza horiek, herritarrek (elkarrizketetan, inkestan, Herri Batzarrean eta bestelako ekintzetan), udal teknikariek eta Udal Ordezkariek proposatutakoak dira. Ekintza plana herritarrekin lantzeko egindako Herri Batzarrean, Altzoko Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean bakarra, herritarrek lehentasunezko jotzen dituzten ekintzak identifikatu dira. Herritarren lehentasunak ezagutu ondoren, Udal Ordezkariekin egindako bileran Altzoko Udalak bere egiten duen Behin Betiko Ekintza Plana osatu da.

Dokumentu honen lehen atalean Helburuak zehazten dira, eta ondoren Ekintza Plana osatzen duten Ekintzak aurkezten dira. Ekintzen artean, kolorez nabarmendu dira ondoko bi motatakoak:

- Herri Batzarrean herritarren aldetik lehentasunezko jo zirenak.
- Udalaren erabakiz, Behin Betiko Ekintza Planean lehentasuna izango dutenak.

Azkenik, udalez gaindiko erakundeek proposatutako ekintzen zerrenda jasotzen da.

## LERRO ESTRATEGIKOEN ZERRENDA

- LE1. Etxebizitza, oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea bermatu.
- LE2. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.
- LE3. Ur/energia/hondakin zerbitzuak hobetu.
- LE4. Udalerriko ekonomiaren sustapena eta dibertsifikazioa lortu.
- LE5. Baserri bizitza mantendu eta suspertu, naturaren, paisaiaren, ondare kulturalaren eta herri nortasunaren mantenuan duen garrantziarekin uztartuz.
- LE6. Natur baliabideak eta ondarea zaindu.
- LE7. Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen eragina murriztu.
- LE8. Udalerriko hirigintzaren plangintza eta araudia iraunkortasun irizpideekin landu.
- LE9. Udal kudeaketa hobetu eta herri-kohesioa sustatu.

## HELBURUAK

### LE1. Etxebizitza, oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea bermatu

#### BIZTANLERIA

- Biztanle kopuruaren berreskuratze erritmoa mantendu.
- Herriko gazteak herritik joan ez daitezen lortu.
- Biztanleriaren berpizkunde biologikoa azken urteetako erritmo berean mantendu.
- Lo-herri bihurtzea ekidin.

#### ETXEBIZITZA

- Herriak zenbat eta nola hazi behar duen herritarren nahietara egokitu.
- Udalak duen lursail kopuru baxuak udalaren etxebizitza politika baldintzatzea saihestu.
- Baserri hutsak etxebizitza bihurtzea sustatu.

#### OINARRIZKO ZERBITZUAK

- Herritarren bizi kalitatea hobetu eta, aldi berean, ekonomikoki bideragarriak diren oinarrizko zerbitzuak bultzatu.
- Auzoek herrigunearen aldean dituzten gabeziak gainditu.

#### HEZKUNTZA

- Hezkuntza zerbitzuen hornidurak (jangela, haurtzaindegia, eskolaz kanpoko ekintzak...) herritarren beharretara egokitu.
- Eskola berrian haurtzaindegia izatea lortu.

#### OSASUNA

- Egungo osasun zerbitzua herritarren beharretara egokitzen jarraitu.

**GIZARTE ZERBITZUAK**

- Gizarte zerbitzuen inguruko informazioa herritar guztiei banatzen jarraitu.
- Gizarte zerbitzuak herritarren beharretara egokitzen jarraitu.

**KULTUR ONDAREA, ETA KULTUR, KIROL ETA AISIALDIRAKO EKIPAMENDUA ETA JARDUERAK**

- Gazteek beraien beharretara egokitutako lokala izatea lortu.
- Kultur eta aisialdirako ekipamendua herritarren beharretara egokitu.
- Kultur eta aisialdirako eskaintza herritarren beharretara egokitu.
- Kirol eskakizunak herritarren beharretara egokitu.
- Egungo euskararen erabilera eta kalitatea mantendu.

**GIZABIDE BALOREAK**

- Gizabide baloreak errespetatu.

**LE2. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.****MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

- Herri bideak berreskuratu.
- Oinezko bideak garbi eta egoera onean mantendu.
- Plazan eta frontoi zaharrearantz aparkatzeko ohiturari aurre egin.
- Plaza zeharkatzen duen errepidean abiadura murrizteko moduak ezarri.
- Errepideetan arrisku egoerak saihestu.
- Udalerri barruko irisgarritasuna hobetu.

**LE3. Ur/Energia/Hondakin zerbitzuak hobetu.****URA**

- Ur hornidura egokia ziurtatu.
- Ur kontsumo eraginkorra sustatu.
- Ur saneamendu egokia ziurtatu.

**ENERGIA**

- Energia hornidura egokia ziurtatu.
- Eraginkortasun energetikoa eta energia iturri berriztagarriak sustatu herrian eta udal eraikinetan.

**HONDAKINAK**

- Hondakinen ekoizpen tasa txikitzea eta birziklapen tasa handitzea sustatu.
- Hondakinen kudeaketa sistema hobetu.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinen kudeaketa egokia ziurtatu.
- Hondakinen kudeaketa egokiaren inguruko informazioa helarazi herritarrei.

**LE4. Udalerriko ekonomiaren sustapena eta dibertsifikazioa lortu****JARDUERA EKONOMIKOA**

- Kalitatezko ekonomia sustatu eta dibertsifikazioa lortu.

**LE5. Baserri bizitza mantendu eta suspertu, naturaren, paisaiaren, ondare kulturalaren eta herri nortasunaren mantenuan duen garrantziarekin uztartuz****NEKAZAL LURRAK**

- Nekazal lurak babestu.

**BASERRIAREN EKONOMIA**

- Lehen sektorea indartu.
- Belaunaldien ordezkapena eta baserritar gazteen ezarpena bultzatu.
- Labeldun produktuak/ produktu ekologikoak/ kalitatearekin lorturiko ziurtagiridun produktuen ekoizpena bultzatu.

**BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK**

- Baserrietan bizi diren pertsonen bizi baldintzak hobetu.

**BASOAK ETA PAISAIA**

- Baserritarren lanak errekonozimendua izatea lortu.
- Nekazaritza eta abeltzaintzak herriaren paisaiaren eta nortasunaren mantenuan duen eragina baloratua izatea lortu.
- Paisaiaren kalitatea mantendu.
- Bertako landare espezieen presentzia indartu.

**LE6. Natur baliabideak eta ondarea zaindu.****NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA**

- Natur baliabideak eta ondarea mantendu.
- Natur baliabideak eta ondarea ezagutzera eman.

## **LE7. Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen eragina murriztu**

### **BASO USTIAPENAK**

- Basoak garbi mantentzea daitezela sustatu.
- Baso-berritzeetan landareen aniztasuna lortu.
- Zertifikatutako basoak bultzatu.
- Baso ustiapenek eragin ditzaketen kalteak saihesten jarraitu.

### **INDUSTRIA**

- Enpresek sortzen dituzten ingurumen inpaktuen kontrola eta jarraipena burutu.
- Enpresen ingurumen zertifikazioak bultzatu.

## **LE8. Udalerriko hirigintzaren plangintza eta araudia iraunkortasun irizpideekin landu**

### **LURZORUAREN KALIFIKAZIO ETA KLASIFIKAZIOA**

- Lurzoru hiritarrezinak udalerrian duen hedapena mantendu.

## **LE9. Udal kudeaketa hobetu eta herri kohesioa sustatu**

### **ARRISKUEN KUDEAKETA**

- Arriskuen udal kudeaketa hobetu.
- Suteen aurreko prebentzioa eta baliabideak indartu.

### **UDAL KUDEAKETA OROKORRA**

- Udal kudeaketa orokorra hobetu.

#### **UDAL INGURUMEN KUDEAKETA**

- Iraunkortasun irizpideak udal kudeaketan txertatu.

#### **UDAL ONDAREAREN KUDEATETA**

- Udal ondarearen kudeaketa hobetu.

#### **HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA**

- Herritarren eta udalaren arteko komunikazioa hobetzen jarraitu.

#### **PARTE-HARTZEA ETA HERRI GIROA**

- Antolatzen diren ekintzetan izaten den parte-hartzea mantendu eta ahal den neurrian hobetu.
- Herri giroa berreskuratu.
- Kanpotik herrira bizitzera datozenen integrazioa bultzatzen jarraitu.

## BEHIN BETIKO EKINTZA PLANA

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
<b>LE1. ETXEBIZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA BERMATU.</b>		
<b>P.1.1. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO ETXEBIZITZA POLITIKA GARATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.1.1.1. Herritarrek etorkizunera begira herriak zenbat eta nola hazi behar duen, etxebizitzak eraikitzeke formulak, eta abar hausnartzeko/eztabaidatzeko eta, etxebizitzaren itxura finkatzeko moduak bilatu.		
E.1.1.1.1. Altzo Muion ez ezik, auzoetan ere etxebizitzak eraikitzeke aukera aztertu.		
E.1.1.2. Etxe berriak egitean, lehentasuna herritarrei ematen jarraitu.		
E.1.1.2.1. Etxe berriak batez ere beharra duten taldeei, hau da, gazteei, familia duten pertsonei, eta adinduei zuzentzeke moduak bilatu.		
E.1.1.2.2. Etxe edo baserri hutsak hartzearen aukera jorratzeke moduak bilatu.		

<sup>1</sup> Laranja, Ekintza Plana lantzeke burututako Herri Batzarrean herritarren aldetik lehentasunezko jo ziren Ekintzak.

<sup>2</sup> Herri Batzarra ospatu ondoren, Udalaren erabakiz Behin-betiko Ekintza Planean lehentasuna izango duten Ekintzak laranja markatzen dira.

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
E.1.1.2.3. Udalak sustatutako etxebizitzak alokairuan ematearen aukerak aztertu.		
E.1.1.3. Baserriak etxebizitza bezala mantentzearen aldeko moduak bilatu, baserri bakoitzean dagokion etxebizitza kopurua baimenduz.		
<b>P.1.2. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK LANTZEKO PROGRAMA.</b>		
E.1.2.1. Herrian edozein zerbitzu jarri aurretik errentagarria eta bideragarria den aztertu (udalak, bilera irekia, inkesta...).		
E.1.2.2. Auzoetan ere Altzon Muinon ezarritako beste zerbitzu batzuk jartzea aztertu. (gas naturala, zuntz optikoa, birziklatzeko edukiontzia, farolak...).		
E.1.2.3. Telebistaren eta WiMaxaren seinaleen inguruko arazoak identifikatu, eta hauentzat irtenbideak bilatu.		
<b>P.1.3. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERA, HEZKUNTZA ZERBITZUAK SORTU ETA GARATZEKO PROGRAMA.</b>		
<b>P.1.4. UDALERRIKO OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BALDINTZAK BEHARREI EGOKITU ETA GARATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.1.4.1. Medikuzko zerbitzua berreskuratzeko beharra dagoen edo ez aztertu inkesta baten bidez.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
E.1.4.2. Herrian eguneko zentro batean beharra dagoen edo ez aztertu.		
E.1.4.3. Herriko nagusiek osasun arreta etxean izan dezatela lortu.		
E.1.4.4. Gizarte zerbitzuetako batzorde bat sortu, herriko eragile, udal zinegotzi eta gizarte langileak koordinatuta.		
E.1.4.5. Gaur egun gizarte zerbitzuek eskaintza dituzten zerbitzuei buruzko informazio eskaintzen jarraitu.		
E.1.4.6. Gizarte zerbitzuen arloan zerbitzu komunitarioa eskaintzeko hitzaldiak eta saioak antolatu.		
E.1.4.7. Urtero antolatzen diren jubilatutako eguna eta irteera mantendu.		
E.1.4.8. Zonaldeko larrialdiko pisuaren beharra eta erabileraren inguruko azterketa burutu.		
<b>P.1.5. UDALERRIKO BEHARRETARA EGOKITUTAKO AISIALDIA, KULTURA ETA KIROL ZERBITZUAK ESKAINTZEKO PROGRAMA.</b>		
E.1.5.1. Ondare kulturala zaintzeko edo birgaitzeko dauden laguntzen inguruko informazioa zabaldu.		
E.1.5.2. Nagusientzako jarduera edo ekintza desberdinak antolatzen jarraitu.		
E.1.5.3. Udalak eraikin bat lortzeko (eguneko zentroa, mediku kontsulta, aisialdiari lotutako ekintzak... aurrera eramateko) dagokion erakundeari dirulaguntza eskatu.		
E.1.5.4. Atsedeen toki bat edo beste egiteko aukerak aztertu.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
E.1.5.5. Udaletxean batzar gela multimedia gela bezala ere erabili.		
E.1.5.6. Gazteen beharretara egokitutako lokala jartzeko aukera dagoen aztertu.		
E.1.5.7. Kiroldegi bat jartzearen beharra aztertu (udalak, bilera irekia, inkesta...) <sup>3</sup>		
E.1.5.8. Frontoian dutxak jartzeko proiektua landu.		
E.1.5.9. Dinamizazioa herritarren beharretara egokitzeko moduak aztertu.		
E.1.5.10. Igerileku bat jartzea aztertu.		
E.1.5.11. Kanpoko herrietako kultur eta kirol ekintzetan parte hartu nahi dutenentzako dauden dirulaguntzak jasotzen dituen ordenantza mantendu, eta eskaeren arabera zabaltzen joan.		
E.1.5.12. Hizkuntzak ikasi nahi dituenarentzat dirulaguntzak mantendu.		
E.1.5.13. Altzoko bazterrak ezagutzeko noizean behin mendi irteera bat antolatu.		

<sup>3</sup> Marra laranja gurutzatuta, Herri Batzarrean herritarren aldetik ekintzak lehentasunezko izendatzeko orduan adostasunik eman ez diren kasuak.

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
<b>P.1.6. UDALERRIAN HIZKUNTZEN BIZIKIDETASUNA BERMATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.1.6.1. Herrian integratzeko euskarak duen garrantziaz kontzientziatzeko dauden bideak zeintzuk diren aditzera eman.	■	■
E.1.6.2. Euskarako ikastaroa gainditzen duenari ematen zaizkion dirulaguntzak gehitzeko ordenantza aldatu.	■	■
E.1.6.3. Gertuen dauden euskaltegien inguruko informazioa banatzen jarraitu: prezioak, ordutegiak, mailak...		■
<b>P.1.7. UDALERRIAN BIZIKIDETASUNA BERMATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.1.7.1. Ehiztariak etxe inguruetan tiroka ez ibiltzeko moduak bilatu.		■
E.1.7.2. Txakurrak aske ez ibiltzeko moduak bilatu.		■
<b>LE2. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEekin ASE.</b>		
<b>P.2.1. BIDE SAREA HOBETZEKO PROGRAMA.</b>		
E.2.1.1. Udalaren errepide sarea apurtzen utzi gabe mantentze lanak egin.	■	■
E.2.1.2. Altzo Muiño eta Altzo azpiko errepidea zabaltzeko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri.		■

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
E.2.1.3. Foru Aldundiak eskumena duen plazatik igarotzen den errepidean abiadura murrizteko sistema eraginkorragoak ezarri.	■	■
E.2.1.4. Foru Aldundiarena den plazatik igarotzen den errepidea desbideratzeko aukera aztertu.	/	■
E.2.1.5. Plaza eta eskola bitartean oinezkoen lehentasuna bermatzeko moduak bilatu.	■	■
E.2.1.6. Errotako bidegurutzean eta Altzo Azpin harrobira doan bidea seinaleztatzeko beharra dagoen jakiteko Altzoko Harrobiarekin harremanetan jarri.	■	■
E.2.1.7. Herrian aparkalekuak non dauden seinaleztatu.	■	■
E.2.1.8. Frontoi zaharreko hesia kontrako aldera mugitu.	■	■
<b>P.2.2. AUTOMOBILAREN ERABILERA ARRAZIONALA BULTZATZEKO PROGRAMA.</b>	■	■
E.2.2.1. Mugikortasunaren inguruan heziketa kanpainak burutzeko dagokion erakundearekin harremanetan jarri.	■	■
E.2.2.2. Gipuzkoako Foru Aldundiari Altzora iristeko eta Altzotik irteteko errepideetan Altzo eta inguruko herriak hobeto seinaleztatzeko eskaera egin.	■	■
E.2.2.3. Inguruko herrietara oinez joateko lasterbideak berreskuratu.	■	■
E.2.2.4. Herri barruko ibilbideak seinaleztatu.	■	■
E.2.2.5. Plazan ez aparkatzeko, debekuaz gain, beste modu batzuk bilatu.	/	■

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
E.2.2.5. Frontoi zaharrear ez aparkatzeko moduak bilatu.	■	■
E.2.2.6. Eskolako garraioaren zerbitzuaren esfortzua udalak bakarrik gain ez hartzeko bideak bilatu.	■	■
<b>P.2.3. GARRAIO PUBLIKOA HOBETU ETA BERONEN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA</b>		
E.2.3.1. Garraio publikoaren maiztasuna areagotu eta herritarren beharretara egokitzeko herritarren beharrak zeintzuk diren aztertu.	■	
E.2.3.2. Garraio publikoaren erabilera sustatzeko moduak bilatu.		
<b>P.2.4. UDALERRIAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.2.4.1. Elurra kentzeko makina bat edukitzea edo pala erostea aztertu.		■
E.2.4.2. Izozteak ekiditeko udalak herritarren eskura gatza jartzearen zerbitzua mantendu.		■
E.2.4.3. Irisgarritasun plana betetzen joaten dela ziurtatu.	■	
<b>LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.</b>		
<b>P.3.1. UR HORNIKUNTZA ETA ARAZKETA SISTEMAK HOBETU ETA UR KONTSUMOA MURRIZTU ETA ERABILERA ERAGINKORRA BULTZATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.3.1.1. Ura aurrezteko neurriak bilatu.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
E.3.1.1.1. Ur eskasia dagoenean, ura lorategiak eta baratzeak ureztatzen ez erabiltzeko moduak bilatu.		
E.3.1.2. Herriguneko saneamendua egokitzeko jarraipena egin Ur Kontsortzioari.		
<b>P.3.2. ENERGIA HORNIKUNTZA SISTEMA HOBETZEKO PROGRAMA.</b>		
<b>P.3.3. ENERGIAREN KONTSUMO ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.3.3.1. Energia berriztagarriak erabiltzeko laguntzak emateko moduak aztertu.		
E.3.3.2. Eskolan energia berriztagarriak jartzeko aukerak aztertu.		
<b>P.3.4. HIRI HONDAKINEN EKOIZPENA MURRIZTU ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.</b>		
E.3.4.1. Herritarrak konpostagailua gehiago erabiltzeko moduak bilatu.		
E.3.4.2. Hondakinen inguruan kontzientziazioa bultzatzeko neurriak bilatu .		
E.3.4.2.1. Lorategietako belarra moztu ondoren ongarri bezala erabiltzeko herritarrak kontzientziazioa moduak bilatu,		
E.3.4.2.2. Lorategietako zaborrak herrian botatzeko tokia izendatu.		
E.3.4.3. Mankomunitateari edukiontzi eta zaborrontzien kopurua gehitzeko eskaera egin beharren arabera.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
E.3.4.3.1. Beharra dagoen tokietan birziklatzeko edukiontziak jartzeko eskaera egin Mankomunitateari.		
E.3.4.4. Posible den tokietan sailkatutako lurpeko zakarrontziak jartzea azertu.		
<b>P.3.5. LEHEN SEKTOREKO HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.</b>		
<b>LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU.</b>		
<b>P.4.1. EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.4.1.1. Herrian lanpostu berriak sortzeko moduak bilatu, modu orekatu batean.		
E.4.1.2. Herriko industriak eta industriguneek zenbat eta nola hazi behar duten inguruan hausnarketa/eztabaida ireki udala, herritarrek eta herriko enpresen artean.		
E.4.1.2.1. Industria berriak eraikitze baimena eman aurretik herritarren iritzia kontutan hartzeko moduak bilatu.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
<b>LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ.</b>		
<b>P.5.1. NEKAZAL LURRAK BABESTEKO PROGRAMA.</b>		
<b>P.5.2. BASERRIAREN EKONOMIA SUSPERTZEKO PROGRAMA.</b>		
E.5.2.1. Belaunaldi berriak bermatzeko moduak bilatu.		
<b>P.5.3. BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO PROGRAMA.</b>		
E.5.3.1. Baserriak seinaleztatu bideetan.		
<b>P.5.4. BASOAK GARBI MANTENTZEKO PROGRAMA.</b>		
E.5.4.1. Udalarenak diren basoak garbi mantentzen jarraitu.		
E.5.4.1.1. Tolosaldea Garatzenek antolatzen dituen Lorezaintza eta Mendi Garbiketako kurtsoetan ikasleek praktikak egiteko udalaren basoak uzten jarraitu.		
E.5.4.1.2. Herrian baso publiko gehiago izateko udalak basoak erosi.		
<b>P.5.5. PAISAI A BABESTEKO PROGRAMA.</b>		
E.5.5.1. Udalerriko baso naturalak mantentzeko moduak bilatu.		

<b>EKINTZAK</b>	<b>Herritarrentzat lehentasuna<sup>1</sup></b>	<b>Udalarentzat lehentasuna<sup>2</sup></b>
E.5.5.2. Nekazaritza eta abeltzaintza jardueri dirulaguntzak bilatzen saiatu, landazabalak mantentzen jarri ditzaten.		
<b>LE6. NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA ZAINDU.</b>		
<b>P.6.1. NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA ZAINTEKO PROGRAMA.</b>		
<b>LE7. UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA MURRIZTU.</b>		
<b>P.7.1. JARDUERA EKONOMIKOEN SORTZEN DITUZTEN INGURUMEN INPAKTUEN KONTROLA ETA JARRAIPENA BURUTZEKO PROGRAMA.</b>		
E.7.1.1. Harrobiari jarraipena egin.		
E.7.1.2. Zerrategiaren jarraipena egin.		
<b>LE8. UDALERRIKO HIRIGINTZAREN PLANGINTZA ETA ARAUDIA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEKIN LANDU.</b>		
<b>P.8.1. LURZORU HIRITARREZINAREN HEDAPENA MANTENTZEKO PROGRAMA.</b>		
<b>LE9. UDAL KUDEAKETA HOBETU ETA HERRI KOHESIOA SUSTATU.</b>		
<b>P.9.1. ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.</b>		
E.9.1.1 Ureztatzeko ahoetan mangeraz hornituta dauden kaxak jarri herriko auzoetan.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna <sup>1</sup>	Udalarentzat lehentasuna <sup>2</sup>
<b>P.9.2. UDAL KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.</b>		
E.9.2.1. Tolosaldea Garatzenek bideratzen duen Diagnostiko Teknologikoa egiteko eskaera egin.		
<b>P.9.3. UDAL ONDAREAREN KUDEATETA HOBETZEKO PROGRAMA</b>		
<b>P.9.4. HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA.</b>		
E.9.4.1. Udaletik egiten den komunikazioa egiten jarraitu.		
E.9.4.2. Udalak esku artean dauden gaien arabera herritarrekin batera Herri bilerak burutu edo Tokiko Agenda 21eko Herri Batzarrak egiten jarraitu.		
<b>P.9.5. PARTEHARTZEA ETA HERRI -GIROA SUSTATZEKO PROGRAMA</b>		
E.9.5.1. Kultur Batzordea eta udal zerrenden inguruan belaunaldi desberdinen arteko hartu-emana gehiago lantzeko moduak bilatu.		
E.9.5.2. Herri giroa sustatzeko moduak bilatu.		

## UDALEZ GAINDIKO ERAKUNDEEK PROPOSATUTAKO EKINTZAK

### Enirio Aralarko Mankomunitatea

#### **LE2. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE.**

P.2.1. BIDE SAREA HOBETZEKO PROGRAMA.

E.2.1.9. Amezketatik Arinatera doan bidean konponketak egin.

E.2.1.10. Larraitzetik Txindokira doan oinezko bidean konponketak egin.

E.2.1.11. Amezketatik Minetara doan oinezko bidean konponketak egin.

#### **LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.**

P.3.1. UR HORNIKUNTZA ETA ARAZKETA SISTEMAK HOBETU ETA UR KONTSUMOA MURRIZTU ETA ERABILERA ERAGINKORRA BULTZATZEKO PROGRAMA.

E.3.1.3. Aralarko ur baliabideak, iturburuak zaindu.

P.3.5. LEHEN SEKTOREKO HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.

E.3.5.1. Aralarko Parkean artzainei zuzenduta izan diren sentsibilizazio kanpainak burutzen jarraitu.

#### **LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ.**

P.5.1. NEKAZAL LURRAK BABESTEKO PROGRAMA.

E.5.1.1. Aralarko Parkean larretarako antolatutako eremuak babesten jarraitu antolaketa zuzen baten bidez.

P.5.3. BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO PROGRAMA.

E.5.3.2. Aralar inguruan lan egiten duten artzainen bizi baldintzak hobetu.

P.5.4. BASOAK GARBI MANTENTZEKO PROGRAMA.

E.5.4.2. Baso gune berriak sortze aldera Enirio- Aralarreko Egitamu Planean aipaturiko guneak baso landatu, lur azalaren oreka bat lortuz bertako espeziekin.

#### **LE6. NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA ZAINDU.**

P.6.1. NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA ZAINZKEKO PROGRAMA.

E.6.1.1. Aralar Parkean dagoen ondarea ezagutarazteko asmoz argitalpenak sustatu.

E.6.1.2. Herritarrei Eniro- Aralarreko ekintzen berri eman.

E.6.1.3. Latxa ardiaren eta bertako beste zenbait espezien (Pottoka,...) presentzia sustatu Aralarko belardietan.

## **Tolomendi**

#### **LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.**

P.3.3. ENERGIAREN KONTSUMO ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEKO PROGRAMA.

E.3.3.3. Lehenengo sektorearen baitan energia berriztagarrien garatzea lagundu.

P.3.5. LEHEN SEKTOREKO HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.

E.3.5.2. Purinaren, baserrietako zabor arriskutsuen... kudeaketa iraunkor bat egiteko egiturak eta baliabideak bultzatu.

#### **LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU.**

P.4.1. EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA.

E.4.1.4. Ekimen berritzaileak erakarri landa eremura eta hauek jasotzeko guneak prestatu.

**LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ.**

**P.5.1. NEKAZAL LURRAK BABESTEKO PROGRAMA.**

E.5.1.2. Nekazaritza ekologikoa bereziki bultzatu.

E.5.1.3. Landa lurak lege eraginkorrez babestu (Lurraldearen Zatikako Planak, Arau Subsidiario...).

E.5.1.4. Lur bankuak sortu, horretarako lurra erosi, alokatu eta kudeatuko duen erakunde bat sortuz.

E.5.1.5. Agroaldean garapena indartu eta gestio modu egokiak garatu.

E.5.1.6. Nekazaritzako lur galerak konpentsatzeko protokoloak zehaztu.

E.5.1.7. Administrazioak inplikatu beren gestio planean dauden landa lurak nekazaritzarako bideratu ditzaten.

E.5.1.8. Erabili gabeko edo abandonatutako lurak nekazaritzarako bideratzeko neurriak martxan jarri.

E.5.1.9. Lurrari lotutako nekazaritza lehenetsi.

**P.5.2. BASERRIAREN EKONOMIA SUSPERTZEKO PROGRAMA.**

E.5.2.2. Sektorearen ikuspegia hobetu, ospea handitu, erakargarriagoa izan dadin.

E.5.2.3. Egitasmo berritzaileak ezagutzera eman.

E.5.2.4. Nekazaritzan instalatu nahi dutenen prestakuntza praktikoa indartu, ekoizpenetan beka sistemekin, proiektuen monitoratze zuzen batekin...

E.5.2.5. Ekoizpenen eskualdaketa garatzeko neurri berriak aztertu, bultzatu.

E.5.2.6. Hemen edo kanpoan gauzatzen ari diren eredu berritzaileak bildu eta zabalkundea egin.

E.5.2.7. Ideia berriak lortzeko lan bat egin; beste herrialdeetako adibideak ezagutzuz.

E.5.2.8. Ideia berritzaileak sortzen direnerako azpiegiturak prestatu (lurrak).

E.5.2.9. Ingurumena, paisaia, landa kultura... nekazaritzako produktuen balio erantsi gisa erabiltzeko moduak aztertu.

**P.5.3. BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO PROGRAMA.**

E.5.3.3. Errentagarritasuna eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten zerbitzuen garapena bultzatu.

E.5.3.4. Makina zerbitzuen antolaketa bultzatu eta hauen kontsolidazioa bermatu.

E.5.3.5. Ordezkapen zerbitzua eguneratzeko neurriak hartu.

E.5.3.6. Eraldaketa eta komertzializaketa egiturak indartzeko neurriak hartu.

## **Tolosaldea Garatzen**

### **LE1. ETXEBIZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA BERMATU.**

P.1.2. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK LANTZEKO PROGRAMA.

E.1.2.4. Amankomunak izan daitezkeen zerbitzuak sustatu.

### **LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU.**

P.4.1. EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA.

E.4.1.3. Herrian zerbitzuen sektoreko jarduera ekonomikoko enpresak sustatu.

## **Tolosaldeako Zaborren Mankomunitatea**

### **LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.**

P.3.4. HIRI HONDAKINEN EKOIZPENA MURRIZTU ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.

E.3.4.5. Tolosaldean zabor bilketa amankomunatua martxan jarri.

E.3.4.6. Arroparen bilketa eta etxeke olio eta hondakin arriskutsuen bilketa ibiltariak mantendu.

E.3.4.7. Enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketarako Gipuzkoako Merkataritza Bazkundearekin Mankomunitateak duen hitzarmena mantendu.

E.3.4.8. Eskualdean bigarren garbigunea ireki, Tolosako San Blasen.

E.3.4.9. Altzari zaharren eta tresna ezberdinen bilketa zerbitzua martxan jarri.

E.3.4.10. Herritarrek konpostagailua etxean izatea sustatu.